

Kutxabankek bat egin du Arabako Foru Aldundiak bultzatutako etxebizitza eskuratzeko programarekin

- **Abalen eta finantzaketaren kudeaketan duen esperientzia emango du, baita kudeaketaren arintasuna ere**

2025eko martxoaren 17an. Kutxabank finantza-sektoreko lehen erakundea da Arabako Foru Aldundiak sustatutako 36 urtetik beherako gazteentzako lehen etxebizitza erosteko abalen programari atxiki zaiona.

Ekimen horri esker, kaudimendunak izan arren etxebizitzarako sarrera lortzeko behar besteko aurrezkirik sortu ez duten gazteei mailegu baten ondoriozko ordainketei aurre egiteko aukera emango die, etxebizitzaren balioaren %80 eta %95aren arteko aldea bermatuko baita.

Ildo horretan, finantza-erakundeak abalen eta finantzaketaren kudeaketan duen esperientzia emango du, baita kudeaketaren arintasuna ere, kobrantza-bermeak eta Aldundiak eskaintzen dituen zerbitzu gehigarriak osatuz.

Etxebizitzak erosteko abalen programa Araban eta Trebiñuko Enklabeen bizi diren 36 urtetik beherako pertsonentzat da, etenik gabe azken bi urteetan. Abalaren gehieneko iraupena 10 urtekoa da, eta etxebizitzaren erosketa-prezioaren gehieneko zenbatekoa 325.000 eurokoa.

Atxikimendu horrekin, Aldundiak eta Kutxabankek elkarrekin lan egingo dute etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzeko, lurraldean biztanleria finkatzen duen eta lurralde-oreka bultzatzen duen ekimen batekin, programa Arabako udalerrri guztietara hedatzen baita.